

## EpaiDigitala (Webex) jarduketa judizialetan parte hartzea

<b>Organoaren jakinarazpena</b>	Deialdia egiten duen organoak mezu elektronikoko bat bidaliko dio parte-hartzaile bakoitzari, ekitaldiaren datuekin (eguna eta ordua), eta sartzeko estekarekin.
<b>Konexioa egiteko behar diren baliabideak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Mahai gainekoa edo ordenagailu eramangarria, Windows 10 eta Microsoft Edge, Google Chrome edo Mozilla Firefox nabigatzaileen bertsio eguneratuekin. <a href="#">Nabigatzailea</a> edo <a href="#">aplikazioa</a> erabiliz nola konektatu azaltzen duen bideoa ikus dezakezu.</li> <li>• Tableta edo telefono mugikorra, Interneterako sarbidearekin. Mugikorra edo tableta erabiliz <a href="#">nola konektatu</a> azaltzen duen bideoa ikus dezakezu.</li> <li>• Kamera, mikrofonoa eta bozgorailuak. Mikrofonoa duten entzungailuak erabiltzea gomendatzen da, zaratak saihesteko.</li> <li>• Interneterako konexio ona. Zure konexioa <a href="#">egiaztatu</a>. Lehenengoa aldiz konektatzen bazara Jarduketa digital batera, webex-era <a href="#">konektatzeko testa</a> egitea komeni da, irudiaren eta audioaren kalitatea ikusteko.</li> </ul>
<b>Bilerara sarbidea</b>	Sartzeko, egin klik email bidez jasotako gonbidapeneko bilera-estekaren gainean (edo kopiatu eta itsatsi nabigatzailean). Informazio gehiago nahi izanez gero, ikus <a href="#">kanpoko gonbidatuentzako eskuliburua</a> .
<b>Identifikazioa</b>	Funtzionarioak pertsona horren identifikazioa egiaztatuko du.
<b>Desgaitasunen bat duen pertsonari buruzko prozesuetan kontuan hartu beharrekoa</b>	<p>Elkarrizketak isilpekoak dira, pertsonaren intimitateari eragiten baitiote. Bilatu intimitate hori gordeko duen lekua eta sahiestu areto komunetan, korridoretan... egitea.</p> <p>Hitz egin behar dutenez, sahiestu distrakzioak eta kanpoko esku-hartzeak.</p> <p>Artatzen dituztenek (zaintzaileak, senideak, langileak) erraztzaile gisa joka dezakete komunikatzeko zailtasunen bat badute.</p>

## EpaiDigitalak eraginkortasunez erabiltzeko aholkuak



### Mikrofonoa isildu

Ez duzunean hitz egiten mikrofonoa isilduko duzu, horrela, elkarrizketaren kalitatea jeistea eta hitz egiten ari dena ondo ez entzutea eragiten duten inguruneko zarata, eztul eta aulkimugimenduak elkarrizketan sartzea saihestuko dituzu. Gogoratu, hitz egiten duzun bakoitzean mikrofonoa aktibatzea.



### Ingurunea prestatu

Atzeko planoan kolore argia jarri, argitasunarekin, argi kontra eta itzalik gabe, kamera garbitu. Irudiaren erdian kokatu zaitez (salako irudian zentratuta agertzeko).



### Eramangarriak Salan

Salan, EpaiDigitalera konektatzeko erabiltzen diren eramangarri guztiak soinu gabe egon behar dira, JustizialkusBiko mikrofonoetan soinu akoplerik ez izateko. Salan daudenen ahotsak salako mikrofonoetatik jasoko dira.



### Denboraz sartu

Hitzartutako ordua baino 5 minutu lehenago sartu.



### Mugikorra soinu gabe

Mugikorra soinu gabe jarri, egintza telematikoan zaratarik ez entzuteko.



### Hobe entzungailuekin

Erabili mikrofonoa duten entzungailuak, bozgorailuak eta web-kameraren mikrofonoak erabili ordez. Horrela, soinua argiagoa izango da, ingurune-zarata eta soinu akopleak ekidinez.



### Dokumentuak aurkeztu Salan

Salan aurkeztu beharreko dokumentuak, digitalizatu eta biltegiragailu batean eraman.